

TITICACA

LAKUAN TREKKINEZ

Julio Piñel



"A IZU, goizeko bostak dira.
Jeiki beharra dugu"

— "Beno, beno, ba noa"

Horrela hasi genuen 1986ko Uztaileko 27 garren eguna. Bolivian pasatzen genuen laugarren eguna zen, eta mendien artean ibilzeko lehena. Titikaka lakura joango ginen. 7retarako bageunden bidean, jendez gainezka zegoen autobus zahar batean. La Paz dagoen zuloa utzi eta gero, altiplanoan zehar abiatu ginen. Handik, hiriaren zulotik bestaldera, Illimani haundia ikusten genuen, eta gure aurrean El Altoko (La Paz-eko auzo gorenena eta txiroena) etxeak, eta gerora altiplanoaren lehortasuna eta kolore marroia, eta alboan, Cordillera Real-eko mendi ikaragarriak: Huayna, Condoriri, Pico Norte, eta, beti azkenean, Illampu. Berehala heldu ginen lakuaren inguruetara.

Altiplanoan baino landare gehiago daude hemendik eta bere inguruneak beti menditsuak eta marroiak dira. Erori berria

zen elur apurua ikusten zen herri batzutan, baina zerua garbi agertzen zitzaigun. Lakuaren ondoan ordu bat baino gehiago pasatua genuela, itsasarte batetara heldu ginen. Txalupa batetan bidaiariak eta bestean autobusa, lakuaren beste aldera dagoen penintsula batetara pasatu ginen. Lakuaren beste ertza Perutarra izan arren, penintsula hau Boliviari dagokio, eta hain zuzen ere, txalupan sartu baino lehenago, beste ertza seinalatzen zuen gizairudi batetan zera irakurri ahal izan nuen: "Lo que un día fue nuestro, nuestro volverá a ser". Zihur aski aintzineko gerrate baten gogorapena. Pentsa zenezakete: "Zergatik ez zubi bat eraiki bi ertzak komunikatzeko?" Oso errez" Ertz bakoitzeko bi herrien negozioa (garraioa) pikutara joango litzatekeelako. Penintsulan zehar abiatu bezain laster, aldapa hasi zitzaigun, gora eta behera (4000 m-ak ondotxo pasatuz). Paisaia beti berdina: Pezuzko etxetxoak, llamak, soroak.

La foto de esta genuina amama nos costó pasar por comisaría, después de haber cambiado el rollo de la máquina, para justificar que no intentábamos menospreciar la dignidad de los bolivianos.





LA OPORTUNIDAD DE PASAR POR EL LAGO TITICACA HABIA SIDO UNA ILUSION PENDIENTE DESDE CRIOS, CUANDO ESTUDIABAMOS GEOGRAFIA EN AQUELLOS LIBROS ANCHOS DE PASTAS DURAS.

Copacabana

Azkenean, hauts asko ikusi eta gero, gure helburura heldu ginen: Copacabana. Titikaka ertzean dagoen herri Boliviar nagusia, bere "folklore eta birjinagatik" ezaguna. Hantxe jan ahal izan genuen lakuko arrain nagusia: Pejerrey deritzona (amuarrainaren modukoa), eta hantxe ere ikusi "folklore": Indio pilo bat moz-korturik, herriko orkestaren erritmoan dantzatzen, poliziak, txerriak, propaganda politikoa (batez ere ADNrena, Banzer exdikato-rearen alderdia.

"Una horita nada más"

Berehala irten ginen ilusioz eta pisuz kargaturik. Baina a nolako kontua! Bazterra oso bustia zegoen eta buelta haundia eman behar zen kilometro zikin bat egiteko. Eta gure ondotik beti indioak pasatzen, gu baino bizkorrago. Dudarik gabe altuerak bazuen eraginik gudan, eta pausua moldatu beharra genuen. Baina ze demontre! Nahiko zen Titikaka lakuan egotea!

Eta ertza beti aldapatsua, gora, behera, ezkerrera, eskubira, herri bat, etxe bat ... Eta penintsularen ertzeraino zenbat falta zen galdetzen genuenean, "una horita nada más" erantzuten ziguten. 180 minututako orduak izango dira Bolivian, arratsaldean ongi sartu arte ez ginelako heldu gure helburura, Yampupata herrira ¡"Gringos, gringos!" hasi ziren herriko umeak, gehienak harrika. Herriko "futbol-zelaiean" (!) La Paz-en esan ziguten tipoarekin topatu ginen. Hark eraman gintuen lo egiteko lekura, eta urrengo egunean noiz irtetzeko esan zigun. Hango indioak erdera motza du, baina ez pobrea. Hitzen bukaera laburtzeko joera dute. Gau ikusgarria pasatu genuen, afari on bat izan eta gero.

Eguzkiaren irlan

Ohera sartzerakoan zerua izarrez beterik bazegoen, gerora kriston txingorrada izan genuen, eta urrengo egunerako paisaia zuri-zuri zegoen. Ibilaldi luze bat genuen gure aurretik. Motorezko txalupa batetan pasatu ginen Eguzkiaren irlara, ordu erdi batetako epean. Gidariari urrengo egunean Challan egoteko esan genion.

Igotzen eta igotzen, Yumani herrira heldu ginen. Eta hantxe geundela, gutariko bat falta zela, Daniel falta zela, konturatu ginen. Alperrik izan zen haren bila aritzea, nahiz eta herriko umeak joan. Hango gazteak ez ziren eskolara joaten. Gehienak, han normala den bezela oin-utsik zeuden, azala oso iluna zuten eta jateko zerbait nahi zuten. Guk bidea jarraitu genuen kezkatuturik, irlaren ezkerreko partetik. Gure helburua irlaren puntara heltzea zen, eta ondoren Challa herrira heldu, irlaren beste ertzean. Eta guzti hori nahi gabe egin genuen. Zerua lainotsu zegoen, ura lasai eta paisaia beti berbera: Zapaltzen genuen lurba oso marroia, harri askorekin, begetazio apurrarekin. Temperatura epela zen, ez altiplanoan bezain hotza. Baina gure buruak beroegi zeuden, eta tontor batetara heldu ginenean, pentsatzen genuenaren beste ertzean geundela konturatu ginen. Hura izan zen nik hartu nuen haserre.

Buelta eman genuen, aldapa gora eta behera. Baiaren beste aldera pasatu ginenean, irlaren zentru geografikoan geunden. Handik ongi koka genezakeen gure bidea. Gure urrean Illampu mendia genuen. Eta nik pentsatzen nuen: "Hortaz bestaldera oihana, ibaiak, piztiak ... eta ni hemen, munduko beste puntuan!" Berehalaxe heldu ginen irlaren puntu interesgarrienera: Uraren eta haizearen lasaitasunean, hantxe zenden inka erruinak:





Fotos: Juan M. Obsoa

**"AHISITO NO MAS" HAY ABUNDANTES
RUINAS Y LEYENDAS SOBRE EL ORIGEN
DE LOS INCAS**

"Eguzkiaren harria", laberinto itxurazko eraikuntza zaharrak ... inka zibilizazioaren gunea. Irlaren puntara heldu eta atsedena hartu genuen: Ur korrontearen hotsa, haitz haundiak, ur urdina ... Baina bueltatu beharra zegoen. bide inka bat jarraituz, irlaren beste ertzetik joan ginen.

Ertz honetan bazeuden herriak eta jendea, eta geure konfidantzaz, Challan geundela uste izan genuen herri txiki batetara heltzean. Berehala hasi ginen Daniel gizajoaren bila. Baina txerriak eta txakurrak zeuden bakarrik hau. Hura ezin zen izan Challa. Nazkaturik, aurrera jarraitu ginen, eta Challara heldu ginenerako, gaua genuen ia ia. Guztiz nekaturik nengoen ni, baina poztu egin nintzen Daniel ikustean. Zirudienez, irlara heltzean beste ertzetik jartu zen, ez zuen janaririk ezta bidearen ezaguerarik, eta sabela guztiz hutsik zuela herrira heldu zen.



"A formar"

Han, herriko maisuak jateko eman zion. Kanpoan ekaitza zegoela, herriko "ikas-tolako" "ikasgela" batetan egin genuen lo, eta bai ondo, 9 ordu ibili eta gero. Goizez, maisuak herrian bizi zuten egoera azaldu zigun. Joateko prest geundenean, maisua,

ikasleak eta gu (argazkilariak ez ezik) bildu ginen argazkian irtetzeko. Ikasleek beldurra zioten burdinezko makinari, baina maisuak "¡A formar!" esan zuenean, berehala etorri ziren.

Ondoren gidaria heldu zen eta txalupara igo ginen. Ez pentsa, jende gutxi joaten zen irla horretara "trekking" moduan, urtean

bizpahiru talde. Eguzkiaren irlatik eta uretatik zehar, "Ilargiaren irlara" abiatu ginen, Illampu mendia beti aurrean genuela. Challa herrian maisuak kontatua zigun Illampu mendira mendigoizaleak igo zitezkeela bakarrik, besteentzat lurra mugitzen hasten zen eta mozkor jartzen ziren.

EL AIRE ES INCREIBLEMENTE LIMPIO Y EL AGUA ES TRANSPARENTE. Y SE VEN LAS TRUCHAS ASALMONADAS. SE ESTA "BUENISIMO" AQUI.

Bueltaren bidea

Ilargiaren irlan, bestea baino askoz txikiagoa, erruina batzu ikusi genituen. Gutariko batzuk igeri egin zuten lakuan. Txalupan berriz igo eta Copacabanarako bidea hartu genuen. Hura izan zen bidaia niretzat! Erdia zorabiatuta egin nuen, txalupan etzanda eta hotza aguantatzen Copacabanara heldu ginenean, gidariari agurtu genion, eta nik oraindik gehiago zorabiatua nengoela egin behar nuen soldaduen aurrean, handik txalupak alkilatzea debekaturik zegoela eta.

Enparantzara heldu ginenean, abentura berri bat genuen gure aurrean. La Paz-era nola joan. Autobus gutxi zegoen, guztiak jendez beterik ("parados", zutik, joatea eskeini ziguten), edo bestela oso garestiak edo oso berandu irtetzen zirenak. Baina nekaturik geundenean, Perutik zetorren gidari batekin aurkitu ginen. Harek prezio on bat eskeini zigun, eta berehala irtetzea La Paz-erantz. Eta horrela egin genuen, guztira 8 pertsona geundela autobusean. Huraxe izan zen bidaia! Poliki, jende gutxi, istoriak kontatzen. Honela esan zigun gidariak.

- "¿Sabían ustedes que el lago tiene dos partes?"

- "No, digamos"

- "Pues mire: Titi para los bolivianos y Caca para los peruanos"

Horrela jarraitu genuen bidaia, lasai lasai eta nahiko aklimataturik, jadanik. Guzti horrek afari on bat eskatzen zuen La Paz-en.

RESUMEN

DE TREKKING POR EL LAGO TITICACA

TRES inolvidables días realizando un trekking de ensueño, por la parte boliviana del lago Titicaca, a la vista del gigantesco Illampu, el rey de la Cordillera Real.

El autobús de línea nos lleva hasta Copacabana, donde nos topamos con el folklore de la fiesta de la Virgen. Mochila al hombro y adelante por la península, al sol de los 4.100 metros, para llegar a Yampupata.

Noche estrellada y amanecer nevando. ¡Pobres playeras!. El siguiente día lo pasamos recorriendo de punta a punta la isla del Sol, en busca de Daniel, que se nos ha perdido nada más desembarcar.

Dormimos en la escuela de Challa y, de madrugada, el maestro hace formar a los críos para facilitar la foto de recuerdo. Da pena irse. Paramos en la isla de la Luna, para terminar de visitar los orígenes de las leyendas incas, y vuelta a la ciudad de La Paz, con un magnífico recuerdo y la primera etapa de nuestra aclimatación conseguida.

